Diplodocus

Diplodocus Saurischia dinosauro ordenako genero bat da. Euskaraz diplodoko ere deitua. Dinosauro horiek Jurasikoan bizi izan ziren (150 eta 147 milioi urte inguru), gaur egun Ipar Amerika diren lurraldeetan.

Eduki-taula

- **Historia**
- **Ezaugarriak**
  - Burua eta lepoa
  - Buztana
  - Hankak
- **Elikadura**
- **Ernalketa**
- **Erreferentziak**
- **Kanpo estekak**

Diplodocus

Irudi gehiago

Sailkapen zientifikoa

Erreinua	Animalia
Filuma	Chordata
Ordena	Saurischia
Familia	Diplodocid (en)
Generoa	***Diplodocus*** Marsh, 1878

Historia

Lehenengo hezurrak 1878. urtean aurkitu ziren Como Bluff herrian, Wyoming (EE.BB) eta Benjamin Mudge eta Samuel Wendel Williston paleontologoek aurkitu zituzten. Urte berean, Othniel Charles Marsehek Diplodocus longus izena jarri zion, euskaraz zutabe bikoitz eta luzea esan nahi du. Handik aurrera, diplodokoak Morrison Formazioan aurkitu izan dira, Estatu Batuetako mendebaldean: Colorado, Utah, Montana eta Wyoming. Dinosauro hauen fosilak nahiko hedatuak daude leku hauetatik, baina sekula ez da bururik aurkitu.[1]

Ezaugarriak

Diplodocus dinosauroa ongi ezagutzen diren dinosauroen artean dago. Lau hanketan ibiltzen zen, oso handiak ziren, lepo luzea zuten eta buztan hedatua latigo formarekin. Aurreko hankak atzekoak baino apur bat laburragoak ziren, beraz bere jarrera horizontala zen ia momentu oro. Aurkitutako diplodokoak 25 metro luzeran eta 6.5 metro altueran zuen. Bere masa 11,5 [2]eta 19,7[3] tonen tartean zegoen.

Diplodokoa gizakiarekin alderatuta

David Gilletek *Diplodocus hallorum* azpigeneroko dinosauro bat aurkitu zuen, baina ez osorik. Lehenengo neurketak okertuak izan arren, gaur egungo ikerketa batek dio 32 metro luzeran eta 25-30 tona izango zituela bizirik.[4] Hauxe da munduan aurkitu den diplodokorik handiena.

Burua eta lepoa

15 bizkar-hezur zuen lepoak eta horregatik lepoa lurrarekin paralelo mantentzen zuela eta hura altxatzeko zailtasun nabariak izango zituela ere pentsatzen da. Diplodokoen buruak oso txikiak ziren beste animalien buruekin konparatuta. Hagin txikiak zituen eta sudurraren zuloak muturrean zituen[5]. Lepotik behera eta buztaneraino keratinazko arantza txiki eta zorrotzak, iguanaren modukoak, zituela demostratu da.[6]

Buztana

80 bizkar-hezurrez osatutako buztan luzanga zuen, beste dinosauroekin konparatuta kopuru bikoitza zuen. Defentsarako erabiltzen zuten eta bere lepoaren kontrapisua egiteko ere balio zitzaiela uste da.[5]

Diplodokoren bururik ez da sekula aurkitu. Hemen beste dinosauro baten burua ikusgai pertsona batekin konparatu ahal izateko.

Hankak

Zutabeen antzerako hankak zituen. Diplodokoek atzapar bakarra zuen aurreko hanketan (eskuetan). Oraindik ere ez da ezagutzen atzapar honen funtzioa. [7]

Elikadura

Diplodoko dinosauroek belarjaleak ziren.

Besteekin alderatuta, jateko mekanismo arraz ezberdina zuen *Diplodocusek*. Bere haginen higadurak patroi ezberdinak erakusten ditu. Hagin hilera batek hostoak adarretik separatzeko funtzioa zuen eta beste batek janariaren gida eta orekatzaile bezala erabiltzen omen zan. Beheko masailezurrak atzera egin ahal zuen, eta honek asko errazten zuen jateko orduan ahoaren irekiera eta haginen postura janarira doitzeko ahalmena ematen zielako.[8]

Beren elikadura aparatua gaurko hegazti modernoen antzerakoa zela pentsatzen da: gastrolitoak, paparo eta arandoi[9]



Diplodokoen hankak

Ernalketa

Diplodocus dinosauroek obiparoak ziren. Hau da, arrautzen bidez ernaltzen ziren.

Oraindik ez dago ziurtatuta zein ernaltze ohiturak zituzten, baina taldeko beste kideekin batera zuloetan arrautzak jartzen zituztela uste da. Zulo hauek landaretzarekin estaltzen zituzten babes modura. Beste hipotesi batek zuhaitz askoko lekuetan erruten zituztela babes modura. Hala ere, jakin da hobiratzen tamaina eta arrautzen tamaina txikia zela. Badirudi, tamaina txikiko arrautzak harrapakariengandik errazago babesten dira denbora laburrez errun zirelako eta arrautza-oskoletik lehenago ateratzen ziren. [10]

Beren hazketa oso azkarra zen eta 10 urterekin ernaltzeko gai ziren jadanik. Gero bere hazketa ez zen geratzen, hamarkadak behar zituzten heldutasunera heltzeko.[11]

Erreferentziak

1. ↑ Marsh, O. C.. (1878-11-01). «Principal characters of American Jurassic dinosaurs» (https://dx.doi.org/10.2475/ajs.s3-16.95.411) *American Journal of Science* (95): 411–416 doi:10.2475/ajs.s3-16.95.411 (https://dx.doi.org/10.2475%2Fajs.s3-16.95.411) ISSN 0002-9599 (http://worldcat.org/issn/0002-9599) . Noiz kontsultatua: 2019-07-30.
2. ↑ *Dino Art Sauropods.* (http://gspauldino.com/DinoArtSauropods.pdf).
3. ↑ Seebacher, Frank. (2001-03-26). [0051:ANMTCA (https://doi.org/10.1671/0272-4634(2001)021)2.0.CO;2 «A new method to calculate allometric length-mass relationships of dinosaurs»] *Journal of Vertebrate Paleontology* (1): 51–60 doi:10.1671/0272-4634(2001)021[0051:ANMTCA]2.0.CO;2 (https://dx.doi.org/10.1671%2F0272-4634%282001%29021%5B0051%3AANMTCA%5D2.0.CO%3B2) ISSN 0272-4634 (http://worldcat.org/issn/0272-4634) . Noiz kontsultatua: 2019-07-30.
4. ↑ **(Ingelesez)** «Smackdown: Supersaurus vs. Giraffatitan and Diplodocus» (https://www.skeletaldrawing.com/home/smackdown-supersaurus-vs-giraffatitan-and-diplodocus7212014) *Scott Hartman's Skeletal Drawing.com* . Noiz kontsultatua: 2019-07-30.

5. ↑ a b Witmer, L. M.. (2001-08-03). «Nostril Position in Dinosaurs and Other Vertebrates and Its Significance for Nasal Function» (https://dx.doi.org/10.1126/science.1062681) *Science* (5531): 850–853 doi:10.1126/science.1062681 (https://dx.doi.org/10.1126%2Fscience.1062681) ISSN 0036-8075 (http://worldcat.org/issn/0036-8075) . Noiz kontsultatua: 2019-07-30.
6. ↑ (Ingelesez) Czerkas, Stephen A.. (1992-12-01). «Discovery of dermal spines reveals a new look for sauropod dinosaurs» (https://pubs.geoscienceworld.org/gsa/geology/article-abstract/20/12/1068/187172/discovery-of-dermal-spines-reveals-a-new-look-for) *Geology* (12): 1068–1070 doi:10.1130/0091-7613(1992)0202.3.CO;2 (https://dx.doi.org/10.1130%2F0091-7613%281992%290202.3.CO%3B2) ISSN 0091-7613 (http://worldcat.org/issn/0091-7613) . Noiz kontsultatua: 2019-07-30.
7. ↑ Bonnan, Matthew F.. (2003-09-12). «The evolution of manus shape in sauropod dinosaurs: implications for functional morphology, forelimb orientation, and phylogeny» (https://dx.doi.org/10.1671/a1108) *Journal of Vertebrate Paleontology* (3): 595–613 doi:10.1671/a1108 (https://dx.doi.org/10.1671%2Fa1108) ISSN 0272-4634 (http://worldcat.org/issn/0272-4634) . Noiz kontsultatua: 2019-07-30.
8. ↑ *Evolution of herbivory in terrestrial vertebrates : perspectives from the fossil record.* (https://www.worldcat.org/oclc/43311755) Cambridge University Press 2000 ISBN 0521594499 PMC 43311755 (http://www.pubmedcentral.nih.gov/articlerender.fcgi?tool=pmcentrez&artid=43311755) . Noiz kontsultatua: 2019-07-30.
9. ↑ Moratalla, Joaquín.. (2008). *Dinosaurios : un paseo entre gigantes.* (https://www.worldcat.org/oclc/301561958) Edaf ISBN 9788441424500 PMC 301561958 (http://www.pubmedcentral.nih.gov/articlerender.fcgi?tool=pmcentrez&artid=301561958) . Noiz kontsultatua: 2019-07-30.
10. ↑ (Ingelesez) Ruxton, Graeme D.; Birchard, Geoffrey F.; Deeming, D. Charles. (2014). «Incubation time as an important influence on egg production and distribution into clutches for sauropod dinosaurs» (https://www.cambridge.org/core/product/identifier/S0094837300001846/type/journal_article) *Paleobiology* (3): 323–330 doi:10.1666/13028 (https://dx.doi.org/10.1666%2F13028) ISSN 0094-8373 (http://worldcat.org/issn/0094-8373) . Noiz kontsultatua: 2019-07-30.
11. ↑ Sander, P. Martin. (2000-09). <0466:lhotts>2.0.co;2 «Longbone histology of the Tendaguru sauropods: implications for growth and biology» (https://dx.doi.org/10.1666/0094-8373(2000)026) *Paleobiology* (3): 466–488 doi:10.1666/0094-8373(2000)026<0466:lhotts>2.0.co;2 (https://dx.doi.org/10.1666%2F0094-8373%282000%29026%3C0466%3Alhotts%3E2.0.co%3B2) ISSN 0094-8373 (http://worldcat.org/issn/0094-8373) . Noiz kontsultatua: 2019-07-30.

Kanpo estekak

Autoritate kontrola	**Wikimedia proiektuak** · Datuak: Q14330 · Multimedia: Diplodocus (https://commons.wikimedia.org/wiki/Category:Diplodocus) · Espezieak: Diplodocus **Hiztegiak eta entziklopediak** · Britannica: url (https://www.britannica.com/animal/Diplodocus) · **Datu taxonomikoak** · GBIF: 4822550 (https://www.gbif.org/species/4822550) · Paleobiology Database: 38669 (http://fossilworks.org/bridge.pl?a=taxonInfo&taxon_no=38669)

"https://eu.wikipedia.org/w/index.php?title=Diplodocus&oldid=7763063"(e)tik eskuratuta

To ɔar

Nabigazioa

- Azala
-
- Txokoa
- Albisteak
- Aldaketa berriak
- Ausazko orria
- Laguntza
- Dohaintza egin

Tresnak

- Honanzko lotura duten orriak
- Lotutako orrietako aldaketak
- Fitxategia igo
- Orri bereziak
- Lotura iraunkorra
- Orri honen datuak
- Artikulu hau aipatu
  Wikidata itema

Inprimatu/esportatu

- Liburu bat sortu
- PDF gisa jaitsi
- Inprimatzeko bertsioa

Beste proiektuetan

Wikimedia Commons
Wikiespezieak

Beste hizkuntzak

- Afrikaans
- العربية
- Asturianu
- Azərbaycanca
- Беларуская
- Български
- বাংলা
- Brezhoneg
- ★ Català
- Čeština
- Dansk
- ★ Deutsch
- Ελληνικά
- ★ English
- Esperanto
- ★ Español
- فارسی
- Suomi
- Français
- Gaeilge
- Galego
- עברית
- Hrvatski
- ★ Magyar

- Հայերեն
- Bahasa Indonesia
- Italiano
- 日本語
- Jawa
- ქართული
- Қазақша
- 한국어
- Кыргызча
- Latina
- Lietuvių
- Latviešu
- മലയാളം
- မြန်မာဘာသာ
- Nederlands
- Norsk bokmål
- Occitan
- ଓଡ଼ିଆ
- Polski
- Piemontèis
- پنجابی
- Português
- Română
- Русский
- Scots
- Srpskohrvatski / српскохрватски
- Simple English
- Slovenčina
- Slovenščina
- Српски / srpski
- Svenska
- தமிழ்
- ไทย
- Tagalog
- Türkçe
- Українська
- O‘zbekcha/ўзбекча
- Tiếng Việt
- Winaray
- 吴语
- 中文

Aldatu loturak

Wikipedia Entziklopedia askea

Orriaren azken aldaketa: 12 martxoa 2020, 00:58.

Testua Creative Commons Aitortu-PartekatuBerdin 3.0 lizentziari jarraituz erabil daiteke; baliteke beste klausularen batzuk ere aplikatu behar izatea. Xehetasunen berri izateko, ikus erabilera-baldintzak.